



**HAL**  
open science

## Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepare Erdi-Aroko autore?

Bernard Beñat, B. Oyharçabal

### ► To cite this version:

Bernard Beñat, B. Oyharçabal. Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepare Erdi-Aroko autore?. Euskaltzaindia. J. Haritschelharren omenaldiko liburuan argitaratzekoa, Euskaltzaindia - Académie de la langue basque, pp.119-149, 2007, Iker. artxibo-00185331

**HAL Id: artxibo-00185331**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00185331>**

Submitted on 5 Nov 2007

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

## **Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepeare Erdi-Aroko autore?**

B. Oyharçabal

(J. Haritschelharren omenaldiko liburuan argitaratzekoa, *Iker*, Euskaltzaindia, 2007, 119-149)

Ez ahal didate beltzuri eginen literatura historiaren ikertzaileek, ni eremu horretako noiz behinkako ikusliarra izanki, hartan behar baino barnago menturatzen banaiz, eta kontu zahar batzuetara itzulirik, euskal literaturaren historiografia hunkitzen duten zenbait gogoeta plazaratzen baditut. Aspaldi gogoan alhan naukan paradoxa honetaz ariko naiz: hainbestetan aipatu den euskal literaturaren berankortasunak arras salbuespen guti izan du 1545etik joan den mendearen hondar hamarkadak arte, haietarik bat, ene aburuz, Echepeareren *Linguae Vasconum Primitiae* izanik. Izan ere, euskal literaturak argitalpenik izan badu bere garaia zegoenik, erran nahi baitu euskal gizartearen testuinguruan bere garaiko literaturaren fruitu izan denik, hura izan da. Oro har, berant eta destenorez ibili bada euskal literatura, salbuespen gisa agertzen zaigu alderdi horretarik Echepeareren kopia liburua (baita, berdin, sorkuntza literaturatik kanpo, Leizarragaren itzulpenak ere), ez, ene ustez, aipatu gibelamendu kroniko baten hasikin gisa. Bizkitartean aski da azken bost hamarkadetan argitara eman diren euskal literaturaren historiari behako baten ematea, maiz kontrakoa erraten dela ohartzeko, eta alderantziz, aipatu berankortasunaren aitzindari eta ikurra ikusten dela ardura Echepeare baitan, Erdi-Aroko autore gisa aurkezten delarik. Ideia hori noiztik, nola eta noren bidez sortu, zabaldu eta finkatu zen gure artean izanen dut lehenik hemen aztergai, eta bidenabar ideia horren alde, edota ondorioz, eman diren zenbait argumentu eta ikuspuntu ere eztabaidatuko ditut, Echepeare garai berrietako bertsolarien irudiko poeta ikasigabe gisa aurkezten dutenak bereziki.

### **Etxaidek aipatu Echepeareren eta Ruizen obraren arteko antzekotasuna, eta Mitxelenak azpimarratu Echepeareren obraren erdi-arokotasuna**

Dakigun bezala, euskararen gaineko estudioek ez ezik, euskal testuei eta euskal literaturaren historiari buruzkoek ere zor handia diote XX. mendearen bigarren partean euskal filologia modernoaren bultzatzaile eta zabaltzaile izan zen K. Mitxelenari. Ez da harritzeko, beraz, lehenbiziko euskal autorearen inguruko ideia nagusi zenbait ere Mitxelenaren bidez finkatu badira gure artean.

*Historia de la literatura vasca*-n (1960, 46-47. or.) argiki adierazi zuen Mitxelenak,<sup>1</sup> haren ustez *Erdi-Aroko autore*a zela Echepeare, eta ez, salbu inprentari buruzko haren jarrerari eta euskaltzaletasunari zegozkionetan, Pizkundearen garaikoa:

*Cuando Francisque-Michel y Vinson le apellidaron "el Rabelais vasco" no anduvieron muy acertados. La comparación es inapropiada no sólo porque Dechepare no fue un prosista, sino también porque no hay nada en su obra, salvo el entusiasmo por la imprenta de la que esperaba –si se han de tomar sus palabras al pie de la letra– que pusiera a la lengua vasca por encima de todas las demás que sea propio de un hombre del Renacimiento. En realidad, se piensa ante todo en un autor medieval.* (Mitxelena 1960, 46-47. or.)

Lehenbiziko aldia zen puntu hau – Echepeareren obraren erdi-arokotasuna – gisa horretan azpimarratzen zela euskal literaturaz ordu arte ari izan ziren autoreen artean,<sup>2</sup> eta beharrezkoa

---

<sup>1</sup> Egia erran, ideia jadanik agertu zen Mitxelenak 1958an, G. Díaz Plajaren zuzendaritzapean argitaratu *Historia general de las literaturas hispánicas* obraren bosgarren liburukian egin zuen estudioan (Díaz Plaja 1958, 341-386. or.). Echepeareri buruzko lerroak handik hartu zituen 1960an argitaratu zuen liburuan.

<sup>2</sup> Hegoaldean ere, gerla arte horretaz mintzatu zirenek Pizkundeko garaiko autoretzat jo zuten Echepeare. Horrela egin zuen, adibidez, Aitzolek, Echepeare *primer renacentista vasco* deiturik et haren hizkuntza hautuak gaztelera

da ikustea zer argumentu eman zuen Mitxelenak azterketa horren bideratzeko. Zorigaitzez, zenbait lerro franko laburren barne erabili baitzuen gai hau bere liburuan, ez da aurkitzen azalpen xeherik Mitxelenaren erranetan, eta haren ondoko lanetan ere ez zuen, nik dakidanaz, ideia hau sekula berriz aipatu.<sup>3</sup>

Goian ekarri aipuan ikus daitekeen bezala, Michelek eta Vinsonek Rabelais-ekin alderatu baitzuten Echepeare, kontra jarri zitzairen Mitxelena, eta beste garai bateko autore batekilako konparantza bat ekarri zuen: J Ruiz-ekilakoa, hain zuzen, honek ere, Echepearek baino bi mende lehenago, bere idazlanetan gai erlijiozkoak eta giza maitasunezkoak juntatu baitzituen bere idazlanetan:

*El paralelo de Juan Ruiz resulta obvio. Además de la común condición sacerdotal, se encuentra en ambos la misma mezcla de lo religioso y de lo erótico, tratado de manera más desenfadada. (ibid.)*

Aipu horren arabera, ageri da Mitxelenaren jarreraren eragile nagusia Echepeareren kopletoak gai erlijiozkoen eta amozdizkoen nahastura gordin, uzkurtasunik gabekoa, izan zela, horrelako zerbait Hitako artziprestearen bertsoetan ere kausitzen baitzuen. Ez du iduri beste argumenturik gogoan izan zuen.

Menturaz, batek galda dezake, behin baino gehiagotan Mitxelenak nabarmendu baitzuen Echepeareren neurtizkera aitzinetikako tradizio bati zerraiola, ez ote zuen neurtitzen eran ikusten Echepeareren aurreko garaietako autore egiteko beste arrazoi bat. Adibidez, gisa horretan Salaberri Muñoa (2002) haren kopleten parametro formalen erdi-arokotasunaz mintzatu zaigu berriki.<sup>4</sup> Ordea, Echepearek erabili neurtitz molde nagusia (8+7) eta hoskidetzako jokabidea (asonantzia) nekez anakronismo gisa kontsidera daiteke euskal koplagingintzan, XVI eta XVII. mendeetan aldebat nagusi baitzen liburuetoako neurtitzetan (Iparraldekoetan behintzat).<sup>5</sup> Izan ere, guziz zabaldua izan zen garai haietan, Oihenartek (1665), Echepeare, Etchegaray, Logras eta Etcheberri aipatuz oharrarazi bezala, eta Mitxelenak berak (1960, 66. or.) ere erakutsi bezala, XVII. mendeko lapurtar olerkarien (Etcheberri, Harizmendi, Argaignaratz) lanen aipamena eginez. Kople horien neurriak eta hoskidetzako oinarriak aurreko tradizio batean ere aurkitzen zirela onarturik ere (Mitxelena 1968, Altuna 1981), ezin izan daiteke kopleten erabide ohiko hau irizpide egokia, XVI edo XVII. mendeko neurtizlari baten obra besterik gabe bizi izan zen garaitik kanpo kokatzeko, eta Erdi-Aroaren beranteko adierazpen gisa hartzeko. Mitxelenaren argumentazioa kopleten edukian funtsatua zen oroz gain, ez haien erabidean. Itzuliko gara hondar partean kontu honetara.

### **Argumentu moraletarik literatura historiari dagozkionetara.**

Ruizekin eginekako konparantza, Gil Berak (1992) seinalatu zuen bezala, ez zen arras berria euskal literaturaren historiografian, Mitxelenak egin zuenean. Izan ere, pixka bat lehenago jadanik solas bera erabili baitzuen Etxaidek, 1958an, Mitxelenaren hitzaurre batekin hain zuzen, argitara eman zuen, eta bi urte lehenago Euskaltzaindiak saritu zuen, *Amasei seme Euskalerriko* entseiu liburuan.

Ordea, Mitxelena Etxaiderekin bat bazetorren tematika nahasturengatik Ruizen eta Echepeareren arteko nolabaiteko antzekotasunaren azpimarratzeko, horrela egiteko batak eta besteak zituzten arazoak guziz desberdinak ziren. Mitxelenak euskal literaturaren historiaren egile gisa, Echepeareren kopletan ageri ziren literatura eraginak azaldu nahi zituen, horretarako gai zenbaitek hartzen zuten tokiaz eta tratamenduaz baliatuz. Etxaidek, aldiz, euskaldunei

---

idatzi zuten XVI. mendeko autore nafar zenbaitekin (Malón de Echaide eta Diego de Estella, bereziki) kontrastaturik; ikus Ariztimuño (1933).

<sup>3</sup> Adibidez, 1968an egin zen *Linguae Vasconum Primitiae*-ren argitalpenaren sarrerako hitzetan ez dio deusik ere Echepeareren erdi-arokotasunaz, ez eta J. Ruizekilako konparantzaz ere.

<sup>4</sup> Haren obra idatziaren parametro formalek *Erdi-Arokoak izaten jarraituko (...)* zuten (Salaberri Muñoa 2002, 60. or. ).

<sup>5</sup> Ez ditut gaingiroki baizik ikusi Lazarragaren neurtitzak, baina ez dut aurkitu haietan neurri horretako koplearik.

beren literaturaren berri ematean, ez zuen nahi Echepeare apaizaren idazki ozarrak eliza moralaren aldetik bidegabeki eta anakronikoki epai zitezen:

*Aldi artan apaiz eta pralleak zurian beltzaldi lizunak egitea gauza arrunta (...) zen. Nire esanaren sendogarrizat, Rafael Altamira españar ixtorigille ospetsuak aldi artako bizigiroyaren erakusgarri, Juan Ruiz, Hita'ko artzipresteari buruz dasaiguna azaldu nai dizuet soilki.* (Etxaide 1958, 68. or.)

Ondotik, Altamira historialariaren *Historia de España y de la Civilización española* liburutik atera aipu luze bat eman zuen Etxaidek,<sup>6</sup> erakustera eman beharrez, kristau morala denaz bezainbatean, iragan mendeetako eliza gizonen jokaerak ez zirela geroztik finkatu irizpideen arabera epaitu behar:

*Juan Ruiz'en moralik eza eta Jaungoikozko sua, moral-erakuspidea eta kinismoa nahas-mahas somaturik, txunditurik gelditzen gera aurrenekoz. Nahaste onek ez gaitza arri, aldi artako poesiaren ezaugarri baitzan, geroago ikusiko dugunez. Bestalde, egillearen nortasuna ere alakoxe baitzan, bizi nasaikoa, aldi artakoak ziranez.* (Altamiraren liburutik Etxaidek (1958, 69. or.) atera eta euskararatu aipua)

Garai batez, Elizak eta haren moralak euskal letren ikertzaileen artean zuten eragina kontuan izanik, ez zen harrigarri Etxaidek Echepeareren neurtitzen *defentsaren* egiteko gisa horretako argumentu desenkusagarrien eskaintzea. Etxaidek euskaltzaletasuna eta ohiko kristau balioak osoki baturik eta bere baitan nola bere lanetan ezin elkarretarik bereizirik zeuzkan. Pentsa daiteke euskal kultura oraino hatsik ezin hartuz zegoen 1950eko hamarkadako urte etsigarri haietan literaturako gaiak berriz aipatzean eta euskal autoreak aurkeztean, gogor zitzaiola Etxaideri lehen euskal idazlearen neurtitzak, kristau kontzientziak manatzen ziokeen bezala, euskaldun irakurleen aitzinean besterik gabe gaitzestea.<sup>7</sup> Gisa horretan egoki gertatu zitzaion, espainol literaturan bere tokia aitortzen zitzaion Ruizekilako konparantza. Hau ere apaiz izan baitzen eta denbora berean erlijiozko eta amodiozko gaiak bere lanetan franko librokari erabili baitzituen, esperientzia (Altamira eta Etxaideren ustez) biografikoak baliatuz horretarako. *El libro de buen amor* delakoaren egilearen kasuan bezala, Echepeareren epaitzeko ere garaiei zegokien erlatibismo bera erabil zedin galdatzen zuen Etxaidek. Ez da dudarik Ruizekilako konparantza arrazoi moralengatik egin zuela Etxaidek, literaturako kontuez berez begi eduki gabe, bi idazleen *nasaikeriari* behatzen ziola denen ginetik, eta konparantza historialari baten erranen arabera bideratuz.

1950eko hamarkadan, Etxaide jarrera honen hartzera bultzatu zuen pentsalmoldea oso hedatua zen euskal idazleen artean, eta aurreko hiru mendeetan ere berdin zabaldua izan zen. Ezagunak dira eta askotan agertuak izan dira Oihenartek<sup>8</sup> XVII. mendean, Archuk XIX. mendean,<sup>9</sup> edo Lafittek XX. ean eginekako oharra.<sup>10</sup> Villasantek berak ere Etxaideren bidetik

<sup>6</sup> Ikus Altamira (1900-1911 [2001, I, 570. or., § 529]).

<sup>7</sup> Orixek (1927 [2002, 38. or.]) lehenago beste jokabide bat hartu zuen, Echepeareren lanetan erlijiozko gaiak bereziki aipatuz, eta amodiozkoetako ausartziak erdi-isilean atxikiz edo doi-doia aipatuz. Hona azken hauetaz erran guzia: *Maite-leloen aurreneko neurtitzetan bi oek dakartzi*; bertzek bertzerik gogoan eta / nik Andre dona Maria [Andre dena Mariaren gorazarrez egin olerkia ere amodiozko neurtitzetan sartuz, beraz]. *Bestenaz maite-leloetan ba du baten bat gordin-antza. Gai onetan biotzak zerbait lagunegiten dio: asko ikusia bide zen.*

<sup>8</sup> *Vers d'amour assez malséants à un ecclésiastique, et surtout à un curé ayant charge d'âmes* (Oihenart 1665, 37. or.).

<sup>9</sup> Archuk ez zuen lekukotasun zuzenik utzi, baina G. Brunetek, 1847ko argitalpenaren prestatzeko, Echepeareren olerkiak itzultzeko galdatu zionean, ahalkeaz edo, ukatu zuen *Emazten favore*-ko aitzin azkeneko bi koplak frantseseratzea (3, 55-62). Liburua, beraz, amodio egintzaren edertasuna kantatzen zuten bertso horien itzulpenik gabe argitaratu zen, euskal testua frantseseko bertsoan zentsuratua izanik. Ikus Michel (1857, 441. or.) eta Vinson (1891, §1b).

<sup>10</sup> *Zathi ederrak baditu; bainan -egiari egia zor- aphez batek segurik egin behar ez bezalako hetarik parrasta bat* (Lafitte 1931, 7. or.).

segitu zuen, honek erabili argumentu berak baliatuz *Historia de la literatura vasca*-n Echepereren lana aurkeztean: Hitako artziprestea aipatu zuen bi autoreen obren arteko antzekotasunaren azpimarratzeko, eta erlatibismo historikoaren argumentua baliatu zuen, halaber, Echepereren neurtitzak kristau ikusmolde batetik *zuzenkontra* ez zitezen epai.<sup>11</sup>

Uste izatekoa da, haatik, Mitxelenak uzkur zela bere jarrera besterik gabe Etxaiderenarekin lotzeko, ezen bien arrazoimenduek oinarri bera izanagatik, arras desberdinak ziren funtsean, erran gabe baitoa Mitxelenak deusetan ez zuela Echepereren jokabide edo koplak gordintasuna eliza moralaren ikuspegitik zuzitzeko xederik gai hori aipatzean. Horrela, badirudi guretzat axola duen lerratze bat bezala gertatu zela konparantza honen ondorioz. Etxaidek, eta orobat Villasantek ere, Hitako artziprestea aipatzearekin, nolabait errateko, eliza moralaren erlatibismo diakronikoa zuten gogoan. Mitxelenak, ordea, konparantza hori literaturaren historiaren eta autoreen izaeraren aldetik egoki ote zen behatu zuen. Eta hala zela iritzirik, Ruizen eta Echepereren artean bi menderen arteka bazela kontuan edukiz, argumentu horretaz baliatu zen Echeperare Erdi-Aroko autorea zela agerian emateko.

Ez dakigu hainbeste arrakasta izanen zuen Ruizekilako konparantzak ahozko solasaldietan edo gutun trukaketa pribatuetan beste iturbururik izan ote zuen. Garai hartako euskalaritzaren hara-honatak kontuan izanik, ez litzateke estonatzekoa. Dena den, Etxaideren idazlanetan agertu zen lehenbiziko aldiz alderatze hori, nahiz, duda guti izan daiteke horretaz nik uste, zabaldu, Mitxelenaren bitartez zabaldu zen gero ondoko literatura historialarien artean, ondorioz Echepereren kopia gehienak literaturaren historiaren aldetik Erdi-Aroan kokatzen zirela.

### **Echeperare euskal literaturaren berankortasunaren aitzindari eta ikurra?**

Echeperare Erdi-Aroko autore gisa hartzeko ideiak, Mitxelenak plazaratu ondoan, arrakasta handia izan zuen, eta Hegoaldean ondoko hamarkadetan egin diren literatura historia liburu gehienetan errepikatua izan da, autore gutik, berriki arte bederen, funski auzitan jarri gabe (ikus, halere, Kortazar 1996, 1997 [2000, 85-86. or.]), Echepereren obraren erdi-arokotasuna, hizkuntza eta inprimatzearen gaiari zegokionean izan ezik, agerikoa baino agerikoago izan balitz bezala. Ideia hau, gainera, euskal literaturaz egiten zen beste orokorketa baten indartzera heldu zen (handik indar hartzen zuen bezala): euskal literatura sortzetik beretik, beti garaiz kanpo eta berantarekin ibili izana zela, alegia. Sortzetikako gaitz luzakor bat, Mitxelenak (1960) bezala anitz autorek agerian ezarri izan dutena, eta Sarasolak (1967) ironiazko ateraldi batez gogoratu zuena: *Beti berandu euskaldunak!*

Ez noa hemen euskal literatura luzaz gibelamenduaren gaitzak joa izan delako baieztapenaren eztabaidatzera. Begien bistakoa da, euskaldunak XVI. gizalditik hona jarraiki izan zaizkien jokabide diglosikoak direla kausa, euskarazko literaturak, sorkuntza sailetan besteak beste, zailtasunak izan dituela mendeetan gaindi ordu onean plegatzeko literatura uhin eta berrikuntza handienei. Ez da batere garbi, ordea, nola Echepereren olerkietan koka daitezkeen *akronia* ere errana<sup>12</sup> izan zaion diskronia honen lehenbiziko seinaleak.

Goiago seinalatu dugun bezala, Mitxelenak eta haren ildotik ari izan diren beste literatura historialariek argi izan dute Echepereren obraren alderdi bat behintzat Pizkundearen garaiari lotu behar zitzaioela. Alabaina, inprimatzearen munduan sartu euskararen gorazarrez eginikako koplei Pizkundeko usain berezia darie, eta nekez dudak jar daiteke gai horien

---

<sup>11</sup> *Es verdad que en las poesías amorosas hay trozos de muy subido realismo, inconcebibles hoy en boca de un eclesiástico y aun en quien se precia de cristiano. Pero tal vez corremos en peligro de ser injustos al enjuiciar a un libro y a un autor de época y ambiente muy diferentes de los nuestros. Sabido es que en los últimos siglos el ambiente social cristiano y la literatura que es su reflejo, se caracteriza por una circunspección o mesura que en las épocas anteriores eran desconocidas. Y lo que hoy nos parece escandaloso e incomprensible, en el ambiente y época del poeta no lo era, al menos en tanto grado* (Villasante 1961 [1979, 54. or.]).

<sup>12</sup> *Su obra [Echepererena] (...) prefigura una acronía que será endémica en la literatura vasca de los siglos posteriores* (Juaristi 1987, 37. or.).

tratatzeko Echeparek erakutsi zuen bihozberotasun baikorrak garaiko ideiekin eta literaturarekin lotura hertsia zutela (Haritschelhar 2002a). Haatik, Mitxelenaren ondotik hizkuntzaren alderako alderdi hau, eskaintza hitzean ikus daitekeen bezala Echeparerentzat berarentzat hain garrantzizkoa zena, gutietsi bezala izan da, funtsean bazter kontu bat izan balitz bezala. Horrela, gai hau bazterrean emanik eta obraren gainerako koplak gogoan izanik, euskal literaturaren gibelamenduaren sinbolo bihurtu da Echepare, haren idazlana Erdi-Aroko literaturaren garaiz kanpoko fruitu berantiarra balitz bezala. Hala dio, adibidez, Sarasolak (1971 [1976, 37. or.]): *Dechepare es un cultivador retrasado de la poesía medieval*, paradoxa bururaino eramanik, bere burua hain harroki euskal letren aitzindari eta bide urratzailatzat zeukan autorearen obraz, *euskal literaturaren garai bat hesten* [BOK azpimarratua] zuela erranez. Horrela haren *arkaismoa* (idem, 39. or.) ere aipatu zuen Sarasolak, oihartzunean, Juaristik (1987, 37. or.), ildo beretik, *Dechepare, en efecto, es un primitivo* [azpimarratzea JJrena] baieztatzen zuela, eta Aulestiak (1991), halaber, *medieval retardado* gisa itxuratzen.<sup>13</sup>

1970-1990 hamarkadetako literatura lanetan Mitxelenak aldeztu Ruizekilako konparantza hura ez zen dudan jarri. Areago dena, Juaristik (1987) bi neurtizlariak jainkozko amodio sakratua eta gizon-emazteen arteko maitasun larruzkoa kantatu eta goretsi zituela azpimarratu ondoan, beste puntu batean ere aurkitu uste izan zuen haien arteko bateragune bat: haren arabera, Echeparek, Ruizek egin zuen bezala, bere obraren hobetzeko eta *abantzatzeko* deia egin baitzuen, erakutsi zuen gisa horretan inprimatzearen garaiko munduari ez zitzaiola oraino ohartu egiazki, aurreko garaietako testuen aldakortasuna harentzat oraino indarrean izan balitz bezala.

*También el poeta navarro se muestra dispuesto a que la doctrina y materia de su libro sean perfeccionados por sus posibles lectores, y así lo dice al final de su dedicatoria (...). No parece ser consciente Dechepare de la radical diferencia entre las obras orales –“abiertas” por definición, susceptibles de ser transformadas en el proceso de su reproducción (...) - y las “cerradas” a todo cambio (...). Dechepare es un autor de transición (...) entre una época en que predominaba la tradición oral (y manuscrita) y el nuevo mundo de la imprenta* (Juaristi 1987, 33. or.).

Interpretazio zalantzazkoa da hor egiten dena. Idazle batek, bere obra aipatzerakoan, berak egin baino obra hoberik bestek geroan egingen duelako esperantza erakustea (edo batzuetan desafio egitea ere) oso topos zabaldua izan da paratestuetako erranetan, inprimatzea asmatu baino lehenago, eta ondotik ere bai. Nekez horrelako argumentuetan oinarri daiteke halako solasa zerabilen XVI. mendeko autore batek oraino ahozketasunari zegokion ikuspegi bat atxiki zuela ondorioztatzeko. Are gutiago kasu honetan, ezen Echepare euskarazko lehen liburu inprimatuaren egile izanik, bidezkoa eta pentsatzekoa zen topos hartaz baliatzea, liburuaren azken hitz gisa ekarri zuen Ovidioren latinezko aipuak ere erakutsi bezala.<sup>14</sup> Deus ikustekorik horretan testuen aldagarritasuna eta *irekidura* lekarkeen ahozko tradizioaren eragin batekin, dudarik ez baita Echeparek geroko autoreei eskatzen ziena zela berak ireki ildo urrunago eta barnago eramatea eta obra aberatsagorik eta egokiagorik egitea, ez berak

<sup>13</sup> Aulestiak (1991), bizkitartean, Sarasola eta Juaristik ez bezala, Ruizekilako konparantzaren ahulezia azpimarratzen du. Halere, Echepare Erdi-Arokoasuna berresten du, hain zuzen, paradoxa areagoturik, Ruizen baitan Pizkundearen aitzindari goiztiar bat (*un remoto pionero de él*) ikusten baitu, eta bi mende geroago idatzi zuen Echepare baitan, berriz, Erdi Aroaren hondarkin berantiar bat.

<sup>14</sup> Echeparek ez zuen aipuaren (*Debile principium melior fortuna sequatur*) autorea agertu, eta ez dakigu zehazki nondik hartua zuen. Altunak bere edizio kritikokoan (1980, 261. or.) *Ovidiogantik hartua bide* zuela zioen. Zeiharka hala izanagatik, Echeparek ez zukeen segurenaz ere Ovidiogantik beraganik hartu, honen obran doi bat desberdinki itzulikatua baita errana: *FleBILE principium melior fortuna secuta est* (*Metamorphoses*, VII. lib., 518). Rabelais-ek ere (arras beste testuinguru batean, haatik) ekarri zuen aipua Echeparek erabili itxuran (edizio batzuetan bederen aditzean agertzen den modu aldaketa batekin): *Debile principium melior fortuna sequetur* (*Tiers Livre*, 42. kap.). Horrek ez du erran nahi hau izan zela Echepareren iturria, 1546an argitaratu baitzen *Tiers Livre* delakoa. Dena den, aipua ezaguna izan behar zen eta aspaldi esaera bildumetan jarria.

eginikako koplei hobekuntzen ekartzea; ikus halaber Altuna (1991). Ondoko mendean ere Etcheberri Ziburukoak *Manual Debozinezkoa*-ren sarreran *Irakurtzaille debotari* eskaini neurtitzetan ere aurkituko da topos bera.<sup>15</sup>

*Hasteak gaitzak direla errana duk komunki  
Hunen gañean egiñen dik zenbait berzek hobeki*

Era berean, interpretazio bortxatua iduritzen zait Echeparek euskara inprimaturik ikusirik erakutsi baikortasunean *mentalitate preteknologiko* baten marka ikustea.<sup>16</sup> Alderantziz, eskaintza hitzeko erranek erakustera ematen dute Echeparek inprenta franko barna gizarteratua zen garai bateko ikusmoldea zuela, ez inprenta asmatu berri-berri zenekoa, are gutiago asmatu aurrekoa. Horregatik, hain zuzen, berantetsia zuen euskarazko lehen liburuaren argitaratzea:

*hetan [baskoen artean] izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik miraz nago iauna nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain skribatzeko hon dela. [Eskaintza hitza, 7-10]*

Lerro hauek irakurriz, zalantza handirik gabe ondoriozta daiteke, nik uste, Echepare ohartu zela *inprimatu bagerik* zegoen euskal hizkuntza gutiagotua bezala zela beste hizkuntza modernoan aitzinean. Euskara inprimatua goreski zuen, inprimatu ez izateak sortzen zituen kalte sinbolikoak begitantzen baitzitzaizkion, eta jauzi horrek hizkuntza *burlagarri* horri ekar ziezazkiokkeen onurak azpimarratu nahi baitzituen. *Sautrelako* kopletan ere, hiperbolazko mintzoaz baliaturik, ezin garbiago adierazi zuen esperantza hori:

*Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden  
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen  
Zeren ezein eskripturan erideiten ezpaitzen  
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen. (Sautrela, 15, 6-9)*

### **Non bilatzeko ote dira Echepareren literatura erreferentziak: Frantziako ala Espainiako aldean ?**

Erran bezala maiz konparatuak izanagatik, alde askotarik guziz desberdinak dira Ruizen eta Echepareren obrak, eta nekez parekotzat jo daitezke (Aulestia 1991, Kortazar 1996, 1997 [2000, 46. or.], Salaberri Muñoa 2002, 50. or., Arcocha-Scarcia 2005), salbu, bistan dena, Etxaidek eta Mitxelenak aipatu puntuan: bi autoreak apaizak zirela eta erlijio gaiak nola amodiozkoak erabili zituztela beren neurtitzetan. Kontua da ea hori aski den XVI. mendean idatzi izan zen obraren egilea Erdi-Aroko autore egiteko eta gisa horretan haren koplak literaturaren aldetik Hitako Artziprestearen garaian edo behintzat Erdi-Aroan kokatzeko.

Mitxelenak konparantza honetan finkatu argumentuak aurrekari bat badu, eztabaidatzen ez duena, baina berez datxekiona: Echepareren literatura erreferentziak Espainiako literaturan bilatu beharrak direla, eta beraz Espainiako literaturaren historiaren arabera garaikatu behar dela haren liburuxka. Garai hartako Nafarroa kontuan izanik, ez dira eskas hipotesi hori ontzat ematera bultzatzen duten arrazoiak. Halere, ez dugu bide hau segituko hemen, zeren, ikusiko dugun bezala, *Linguae Vasconum Primitiae* bezalako liburu bat Frantziako letren bilakaeraren

<sup>15</sup> Euskal testuetan guziz arrunta izanzen zen topos horren erabilera garai haietan (ikus Oyharçabal 1999). Horrela, Materrek ere beste norbaitek dotrina bera Sarakoa baino euskara egokiagoan edo ederragoan egiteko deia egin zuen. Nola ez aipa bestalde, hark ere euskara mota gogoan izanik, Axularrek *irakurtzaileari* errana: *haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falien ere erremediatzer.*

<sup>16</sup> *Si se hace abstracción de su entusiasmo por la imprenta (entusiasmo propio de una mentalidad pretecnológica), no se dudaría en equiparlo a un poeta goliardesco de los siglos XIV o XV (Juaristi 1987, 37. or.).*

arabera kontestualizatuz geroz, desagertzen baita Mitxelenak eta haren jarraitzaileek egin behar izan zituzten interpretazio paradoxikoen beharra.

Echepareren biaz gauza guti dakigu eta bizi zen Nafarroako parteaz ere ez dugu informazio handirik. Segurtzat jo dezakegu hura sortu eta hazi zen denborako Nafarroa, erresuma gisa, oraino bat zela, eta hartan gaztelera zela administrazio hizkuntza, segurenaz ere Donibane Garazi hiriko bizi publikoan ere nagusi, Reicherrek (1958) azpimarratu bezala.<sup>17</sup> Ordea, Nafarroako mendiz haraindiko eskualdea, aspaldi, partez Baionako elizbarrutiari lotua zen, eta partez Akizekoari, eta pentsatzekoa da kultura gaietan Akitaniako eta Frantzia aldeko haizeen buhakoak ere haraino iristen zirela (auzo hurbileko bi herrialde euskaldunetakoak ere bai, noski).<sup>18</sup> Dakigun bezala, gerla latz batzuen ondotik XVI. mendeko lehen hamarkadetan puskatu zen Nafarroako Erresuma, eta Echepare mendiz ipar aldeko partean gelditu zen. Bizi izana zen toki eta garaiaगतिक, eta izan zuen karguगतिक ere, uste izatekoa da elizako latinaz eta euskaraz gainera, frantsesa, gaskoia eta gaztelera bazekizkiela; horrek ordea, ez digu salatzen zein kultur ingurumenen eraginpean bereziki idatzi zituen bere koplak.

Orain arte, gehienetan Echepareren neurtitzak beste autore batzuenekin alderatuz, galde horri erantzutera saiatu diren autoreek bi alderditara jo dute: Frantziako aldera batzuek: Michel (1883, 48. or.), Vinson (1891, §1), Gil Bera (1991), Orpustan (1996, 96. or.), Arcocha-Scarcia (1996), Urkizu (2001), Salaberri-Muñoa (2002, 50. or.), eta Espainiako aldera besteek: Mitxelena (1960, 46-47. or.), Villasante (1961 [1971, § 40, 54. or.]), Sarasola (1971 [1976, 38. or.]), Juaristi (1987, 33. or., 1990). Bi alderdietako eraginak (eta ingurukoak ere berdin) aipatu dituztenak ere izan dira: Reicher (1958), Aldekoa (2004, 25. or.).

Arcocha-Scarciak (2005) azpimarratu bezala, testuan berean aurkitzen dugun erreferentzia bakarrak lehenbizikoen ikuspegia bermatzen du, ezen Echeparek *Kontrapas* kopletan euskara beste hizkuntzen lehian bezala aurkezten duelarik, frantsesa bereziki aipatzen du, erakustera emanez horrela hizkuntza hura dela harentzat letra hizkuntza gisa gehienik kontuan hartzeko dena:

*Ezein ere lengoajerik*

*Ez frantsesa ez berzerik*

*Orai ezta erideiten*

*Heuskararen parerik. (Kontrapas, XIV, 35-38)*

Echepare orduko gaztelaniatzko literaturaren testuinguruan bereziki kokatzekoa balitz, nola esplikatu frantses mintzaira aipatu baitzuen koplak horietan, hitzik ere erran gabe gaztelera? Gisa berean Bordeleko inprimatzaile batek egina izateak ez ote du frantses kultura giroaren alderako isuria? Are gehiago Orellak (1980) dioena egia bada, hots, *si el autor fue un "súbdito" del rey español y era además de mentalidad beamontesa*,<sup>19</sup> eta beraz Echepare politikoki ongi ikusia bazen Espainiako aldean. Derragun azkenik, Biarno, Nafarroa Behereko eta inguru haietako garai hartako ingurumenaren arabera, eta Frantziako literaturaren historiaren parametroen arabera kontsideraturik, airatzen dela beste hipotesiari darraion paradoxatasun hura, Echepare Erdi-Aroko autorea bihurtarazten duena. Hori agertu nahi nuke ondoko atalean, erakutsiz Echeparek erabili gai batzuek, zenbaitetan haren erdi-

<sup>17</sup> *La vie civile de Saint-Jean-Pied-de-Port était tournée vers l'Espagne et (...) le castillan était (...) la langue officielle* laburbiltzen du G. Reicherrek (1958).

<sup>18</sup> Baionako apezpikute-gira heltzen zen XV. mendearen hondarrean Espainiako erlijio kulturaren eragina, alderdi materialetan bederen. Veilletek (1910, 167. or.) Dubarat eta Daranatzan arabera dioenez, 1492an Bertrand de Lehet, orduko Baionako Bikario Jeneralak, Baionako prebarioa inprimarazi zuenean, Valentziara jo zuen. Egia da garai hartan Frantziako Hegoaldeko mendebaldean moldiztegitik ez zela; (ikus moldiztegien mapa XVI. mendearen hondar hamarkadetan Mendebaldeko Europar liburu honetan: Febvre & Martin 1958, 266-267. or.).

<sup>19</sup> Aitor dezadan, halere, ene ustez, puntu hau ere, ematen zaion itxuran behintzat, berriz ikustekoa litzatekeela.



arokotasunaren markatzaile ekarriak izan direnak, berdin aurkitzen zirela frantses lehen Pizkundeko poeten neurtitzetan.<sup>20</sup>

### **Echepareren kopletan amodioaz eta emazteez eskaintzen den literatura errepresentazioa Erdi-Aroari dagokionetz.**

Salaberri Muñoak (2002, 47. or.) amodio solasetako kopletan bereziki aurkitzen ditu, gai ei dagokienaz, Echepareren obraren erdi-arokotasunaren ezaugarriak.<sup>21</sup> Haatik, baieztapenak zuzen zer oinarri duen ez da erraz atzematzen, ez baita ikusten Echeparek amodioaz eskaintzen zuen irudia, eta amodiozko kopletan irudikatzen zituen egoerak, Toledok (2003) proposatu bezala *exempla* gisa hartzekoak bide direnak,<sup>22</sup> zertan diren anakronikoak, eta literatura errepresentazioei dagokienaz, bereziki, are gutiago eskusiboki, Erdi-Aroari lotuak. Deus guti haietan, nire irudiko, Erdi-Aroa, eta ez XVI. mendea, gogora dakarrenik, ez gaietan, ez tratamoldean, Haritschelharrek (2002b,c, 2003) zenbait olerkiz egin azterketetan ikus daitezkeenaz. Neurtitz horietan kantatzen diren gizon-emazteen arteko maitasunezko lotura motak (III-XII. koplak) ikusirik, zalantza izatekoa da koplak horien erdi-arokotasunaren azpimarratzeko emanak izan diren ezaugarriak egiazki obran berean hala aurki daitezkeen. Kontsidera, adibidez, ondokoa:

*Erotismo ukitua izan arren, haren [Echepareren] amodio poemetan ez bide da sexu-maitasun hutsa bilatzen. Maitatzea "zerbitzatzea" da.* (Salaberri Muñoa 2002, 47. or.)

Bizkitartean, testuen azterketak ez du horrelakorik berresten. Echepareren kopletan gaitzat hartzen diren amodiozko egoeren bilduman badira, zalantza izpirik gabe, (gizonaren) sexu-gutiziaren asetzeaz beste xederik erakusten ez dutenak, hala nola seinalatzen baitu Aldekoak (2004, 27-28. or.) ere. Beharrez, indarka.<sup>23</sup> Izan ere, gizonaren nahia emaztearen onespenik gabe ere bete zitekeela airoski kantatzen zuen neurtitz batzuetan Echeparek, hala nola *Potaren galdatzia*-n. Maitasun ele guti, edo, zuzenkiago, batere ez, koplak haietan; bai, ordea, ageri-agerian emaztea asalaturik jartzen zuten gizonaren gutizia gordinaren aieruak. Harremanaren nolakotasunaren seinale da elkarrizketa guzian emaztea hurbildu zaion *pot* eskatzaileari mintzatzeko erabili erregistroa, haste-hastetik tokako mintzoak ezin argikiago markatzen duena.<sup>24</sup> *Eya, horrat apart adi, nor uste duk nizala?*. Azkenean, haatik, Aulestiak

<sup>20</sup> Urkizuk (2001), halaber, B. Lehetez ere informazioa ekartzen du Echepareren babeslea Frantziako garaiko kultura sareetan sartua zela erakustera emanez.

<sup>21</sup> Kortazarrek (1996) dioenez, *katiximen argitarazioa Erdi-Aro berantkorraren ezaugarri-tzat* jo baitu Juaristik, Echepareren kopletan giristino dotrinaren aurkitzea ere gisa horretan interpreta ote daitezkeen galda daiteke. Argumentu hori zuzenean garaturik ez baitut atxeman, ez dakit zuzen zer testuingurutan emana izan zen. Derradan, halere, hemen aipatua den kontestualizazio arazoari begira, franko bitxia dela, ez soilik euskarazko argitalpen bihirik izan ez zelako 1545 arte, baina bestalde ere, inprentaren asmakuntzaren ondotik, eta bereziki XVI. mendeko erlijio auzien karietara, finkatu zelako erlijio irakaskintza modernoa Europan, katolikoek kasuan Trentoko Kontzilioan onartu irakasbidea (1566) mugari izanik. Trentoko Kontzilioan onartu zen irakasbidea baino aitzinagokoa izanagatik, Echepareren dotrina ere osoki sartzen da Europako liburugintza hain barna markatu zuen XVI. mendeko erlijio inarrosaldi horretan (cf. Febvre & Martin 1958, VIII. kap.) eta, ene irudiko, nekez ikus daiteke hartan Erdi-Aroko giroaren ezaugarri edo markatzaileak.

<sup>22</sup> Garai hartako frantses literaturan emazteei buruz erabili ziren *exempla* delakoez, ikus Malenfant (2003).

<sup>23</sup> Edo alegia indarka, horrek are urrunago baikinderamatzake amodio kortesaren izpiritu eta kodetarik, orduan josteta erotiko baten arean baikeundeke. Ez dut uste irakurketa hori egiazki egitekoa den Echepareren kasuan, baina ez garai hartan olerki gai hori anakronikoa litzatekeelakoan, zeren holako gaiak aurki baitaitezke orduko poesietan; ikus Marot-en ondoko neurtitzak non amoranteak maitariari horrelako josteta batean sartzeko eskatzen baitio: *Non que je soys ennuyé d'entreprendre / D'avoir le fruit dont le désir me poingt, / Mais je voudrais qu'en me laissant prendre / Vous me dissiez: non, vous ne l'aurez point* (Marot, in Mayer 1964, 184. or.).

<sup>24</sup> Salbuespena da tokako erregistroaren erabilera hau Echepareren amodiozko kopletan, zeren bestela emaztea beti zuka ari baitaio gorte egiten dion gizonari. Halere, bada beste salbuespen bat, are adierazgarriagoa, *Amore gogorraren despita*-n. Koplak haietan, emaztea solasaldiaren erdian (37-40) toka hasten zaio amoranteari ordu arteko zukakoa utzirik, aditzera emateko hain zuzen ase delako haren eskaerez.

(1991) aipatu amodio kortesaren jokabideetarik arras kanpo,<sup>25</sup> bortxaz ere saiatzen da koplaz gizona nahi duenaren erdiestera, emazteak oihuz ihardokitzen diolarik:

- *Nik zer orai nahi baitut, heben duzu eginen.*

- *Uste diat eskuiarki ez izala burlatzen.*

*Gizon hunek orai muia heben laidoz beteren?*

- *Eiagora nik zer daidit zauden ixilik hanbaten?*<sup>26</sup> (*Potaren galdatzia*, VIII, 17-23)

Autore anitzek ohartarazi dute Echepeare nekez asma daitekeela Trentoko kontzilioaren ondoko garaian. Eta hala da, arras beste itxura erakutsiko zuten ondoko mendean Erreforma katolikoaren dotrina eta moralezko arauak euskaldunei erakutsiko zizkieten lapurtar edo amikuztar elizgizon neurtizlari eta prosalariek. 1545ean, ordea, ez gaude oraino horretan, bereziki Nafarroako erresuma puska ttiki hartan. Hango luma gizonak, elizako kargudunak barne, politikoki, erlijiosoki, eta hain segur kulturalki ere, Frantziako erregearen eta Margarita Nafarroako Erreginaren gortean eraginpean zeuden, eta testuinguru horretan kokaturik, Echepeareren figura ez da bizi zen garaitik kanpo kokatzeko arrazoirik, aurreko mendeetako fantasma izan balitz bezala. Alabaina, testuinguru hartan aukera bazuten eliza gizonak amodiozko penak eta atseginak hitz neurtuetan ezartzeko. Frantziako lehen Pizkundeko olerkari ospetsuenak gortean baitzebiltzan, C. Marot-en inguruan bilduak,<sup>27</sup> haien artean Mellin de Saint-Gelais (1487 edo 1491-1558) aipa daiteke eredu gisa. Apaiza eta erregegaiaren kapilau izanik, kantatu zuen honek bere olerkietan berriki M. Jeanneret-ek (2003) *Pizkundearen garaiko erotismo alegera* deitu izan duena, errateko manera hau frango poliki Echepeareren amodiozko koplez mintzatuz ere erabil baitaiteke. Hona zer zioen duela aspaldi Sainte-Beuvek haren olerkiez:

*Melin de Saint-Gelays semble n'avoir négligé aucun des contrastes tel que la poésie pouvoit offrir avec sa profession et fait souvent servir sa science ecclésiastique à des allusions assez profanes. Tantôt il inscrit un compliment d'amour sur le livre d'Heures d'une pénitente (...), tantôt, un jour de Pâques, il observe à sa dame qu'elle doit bien lui alléger ses peines de cour, puisque Dieu délivre en ce moment les âmes languissantes des limbes. Les portraits de saint Jacques, de saint Michel, de saint Georges, et même de saint Antoine, lui inspirent plus de quatrains érotiques que d'oraisons, et il ne respecte ni la Madeleine ni les cent mille Vierges ...* (Sainte-Beuve, in Troubat (arg.) 1883, 66. or.)

Garbi izan bedi: nehola ere ez dugu adierazi nahi Echeparek inspirazio iturri zuzen bat aurkitu zuela guziz bestelako bizia izan zuen eta bestelako obra idatzi zuen Saint-Gelais baitan,<sup>28</sup> baizik ere Echeparek bere obra argitaratu zuen garai hartan berean, Frantziako

<sup>25</sup> *En general esta poesía amorosa [Echepearerena] nos hace recordar la poesía provenzal del amor cortés.* (Aulestia 1991).

<sup>26</sup> Altunak eta Lafonek metrikagatik proposatu interpretazioa eta transkripzioa (*Eiagora, nik zer daidit? - Zauden ixilik hanbaten*) ez dut atxiki hemen, neurtitzaren erdian hiztun aldaketa ekartzeaz gainera (Echeparek ez du beste nehon horrelakorik egiten) zuzenketa bat sartzen baitu (*çauden* dakar jatorriko testuak, ez *çau*). Gisa horretan, bortxatuegi iruditzen zait proposatu irakurketa. Hemengo interpretazioan, ez da zuzentzeko beharrik, helburu perpaus gisa interpreta baitaiteke arazorik gabe neurtitzaren bigarren erdia. Haatik, orduan metrikari agertzen da koska, neurtitz erdia 5+3 izanik orduan, -n gabe posible litzatekeen 4+3 izateko orde (non ez den erorarazten *ixilik* hitzaren hasierako bokala). Neurtitz guzia gizonak errana da orduan: *Eiagora! Zer egin dezaket hainbatean isilik egin zaitezten?*

<sup>27</sup> Egiazko talde bat osatzen zutela agerian eman du Defaux-ek (2002) argitaratu eta iruzkindu duen antologian.

<sup>28</sup> Saint-Gelaisen obra gehiena bildu du Stonek (1993 & 1995). Ikasketak Italian egin ondoan, 1524an apaiztu zen eta ondotik gorte gizona izan zen oroz lehen, haren olerkiak ere giro horretakoak izanki, italiar eragin nabarmena zerakustela. Bestalde, bere burua gerizatu sendi zukeen, bai gai erotikoen erabiltzeko, baita batzuetan elizaren zenbait alderdiren trufatzeko ere (ikus Molinier 1910, Stone 1984). Marot-en adiskide eta olerkari gisa eskola berekoa, gogorki jazari zitzaien *Pléiade* taldeko poeta berritzaileei eta bereziki Ronsard-i. Anekdotak gisa edo, baina poetaren irekidura intelektualaren nolabait azpimarratzeko ere, seinaltatzeko da hari

Erregearen gorteko olerkariak, Margarita Nafarroakoaren gortean ere zebiltzanek, eliza gizonen barne, horrelako gaiak den molderik ausartenean (Echeparek egin baino anitzez modu gordinagoan batzuetan) arazo handirik gabe erabil zitzaizketela. Deusetan ez da Erdi-Aroko garaietara itzultzeko beharrik horrelakoan esplikatzeko.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Echeparek emaztea dela-eta hartu zuen jarrerak, *Emazten fabore* izenburuko koplek bereziki, bete-betean bat egiten zutela garai hartan *Emazteen auzia* deitu eztabaida aspaldikoak frantses literaturan hartu zuen itxura berriarekin. Aurreko garaietan eztabaida zekarten autoreek aldeko eta kontrako arrazoiak aldizka ematen ohi zituzten erretorikaren *disputatio*-aren ereduari jarraikiz. XVI. mendean ordea, *declamatio*-aren eredia nagusitu zen, idazle anitzek jarrera baten alde arrazoikatzen zutelarik:

*La Renaissance marque un tournant dans l'histoire de la querelle des femmes dans la mesure où les humanistes poursuivent cette réflexion sur le statut de la femme en s'inscrivant dans le cadre latin de la declamatio. (...) La declamatio est une transposition dans le domaine de la rhétorique épideictique de la disputatio judiciaire, du raisonnement pro et contra. Cette transposition s'attache non plus à la défense d'arguments contradictoires mais à l'adoption et à la défense d'une seule position dans l'exercice d'un jugement de valeur.* (Marcy 2006)

Echepareren jokabidea ere halakoa izan zen, aipatu auzian jarrera bat hautatu baitzuen. Gainera, jarrera hori hautatzerakoan, garai hartan frantses idazleen artean nagusitu zen alderdia hobetsi zuen berak ere: emazteen aldekoa, hots, haren koplen izenburuak adierazten zuen bezala. Izan ere, XVI. mendearen bigarren hamarkadatik aitzina, jarrera misogino zaharrak, Echepareri gustatzen ez zitzaizkionak (*emazteak ez gaitz erran ene amoregatik...*), desagertu ez baziren ere, nolabait indar gutiagorekin agertu ziren orduko literatura lanetan, Grayk (2000, 10. or.) dioenez, horretan inprimatzeari zetxezkion arrazoi komertzialek zerikusia bazuketelarik:

*It is certainly not incidental that the sudden popularity of pro-women literature coincides with the advent of printing, leading one to suspect that confrontation with misogynistic literature was encouraged, even exploited for commercial purposes by the printers themselves. Judging from the number of new editions of the competing works of Martin Le Franc's Champion des Dames and Cornelius Agrippa's De praecellentia foeminei sexus, La Borderie's Amye de court, and Antoine Heroët's La parfaite Amye, it would appear that the Querelle des femmes and, more or less concurrently, the Querelle des amyes, provided ready material for one of the first successful promotional events in the history of printing in France.* (Gray 2000, 10. or.)

Nahiz emaztea gutiagotzen zuen jarrerak indarrean segitzen zuen bestearen ondoan (Malenfant 2003, 46. or.), ez zen hura garai hartan literatura agerpenetan indar gehiena zuena. Horrela, Marcyk (2006), Gratien du Pont-en neurtitz misoginoak eta garai hartako genero auziari buruzko literatura ikertzean, azpimarratzen du XVI. mendearen bigarren hamarkadatik aitzina, emaztearen faboratzen zuen jarrera izan zela zabalduena deklamazio jokoetan:

*En l'occurrence, la majorité des œuvres de la querelle des femmes à partir de 1500 sont des éloges de la femme. (...) la pratique humaniste de la declamatio, revendiquée bien souvent dans le titre à partir de la seconde décennie du XVI<sup>e</sup> siècle, s'avère liée à l'éloge —l'éloge de la femme constituant alors la position endoxale, le blâme la position paradoxale.* (Marcy 2006)

---

zor zaiola Copernicoren heliozentrismoaren frantsesezko lehen aipamen zehatza (haren izena eman gabe, haatik, eta sinesgogor agerturik ondoko hamarkadetako autore gehienak bezala), *De revolutionibus* argitaratu eta hiru urteren buruan, *Aduertissement sur les Jugemens d'astrologie, A une studieuse Damoysselle* idazlanean (1546); ikus kontu honetaz Ridgely (1962).

Ikusi dugunaz, Echebarek erabili gaietan arrazoi guti da haren literatura mundua Erdi-Aroan kokatzeko, are gutiago hartan Erdi-Aroko herri-kulturaren agerbide baten ikusteko. Gauza guti dakigu mundu hartaz baina harrigarri litzateke orduko herri kulturak sortu eta hazi kantu tematiketan emazteen aldeko argumentaziorik aurkitzea. Dela emazteez, dela amodiozko harremanez —lapurtuak barne—<sup>29</sup> eginikako olerkietan idatziengatik, arrazoi osoz dio Orpustanek:

*Dechepare doit être apprécié et compris dans l'esprit de ses contemporains, souvent eux aussi hommes d'église et même curé ou "abbés tonsurés" comme le furent par exemple respectivement Rabelais et Ronsard parmi bien d'autres.* (Orpustan 1996, 36. or.)

Erligioari dagokion partean ere deus ez da atxematen hemen erranari kontra doakionik. Nik dakidala, dotrina azaltzen duten koplek edukiez ikerketa zehatzik ez da egin, baina horretaz mintzatu direnek diotenaz, ezer heterodoxorik ez da seinalatzekorik Echebareren doktrinan, eta fedegabe baten hoztasunarekin Vinsonek bere bibliografian (1891, §1a) zioen *bon catholique très orthodoxe* zela. Halere, XVI. mendeko ideia berri-tatzaileen eragina ere suma daiteke beharbada batzuetan. Ohargarria da, adibidez, azken judizioa, infernua eta parabisua, damnazioa eta salbamendua, aski luzeki aipaturik ere, nehon purgatorioaren nozioa (eta beraz ez hitza bera ere) ez dela agertzen Echebareren kopletan. Bistan dena, ezinezkoa da jakitea isiltze hori nahizkoa izan zen, ala ustegabekoa, baina kontuan izanik garai hartan purgatorioaz izan ziren eztabaidak (gogoan izan induljentzien auzi bizi-bizia kontu hari zerraiola), badaiteke orduko eztabaiden ondorioa dugun isiltze horretan.<sup>30</sup> Purgatorioari buruzko doktrina franko berant arautu zen arren (Emery 1999),<sup>31</sup> haren kultoa biziki zabaldua izan omen zen XV. mendearen bigarren partetik aitzina Frantziako hegoaldean (ikus Fournié 1997). XVI. mendean, ordea, erreformazaleek gaizki ikusi zuten nozioa, eta higanotek osoki gaitzetsi eta arbuaiatu zuten. Adibidez, Leizarragak itzuli *catechismean* oinarri gabeko asmaketa engainagarri gisa aurkeztua zen:

<sup>29</sup> Azken gai horren garaikotasunaren erakusgarri, hona, adibidez, Mellin de Saint-Gelais-en hamalaukun bat, *Potaren galdatzia*-ko gaia hartzen duena, eta tonu berean eramaten:

*«Non feray ; je n'en feray rien,  
Je ne veux point que l'on m'y touche.  
Laissez mon honneur ; il est bien»  
Disoit une garce farouche  
A un qui dressoit l'escarmouche  
Tout droit sur le bord du fossé.  
«C'est bien rudement repoussé,  
Ce luy dist-il. Escoutez-moy.  
Qu'avez-vous ? Que craignez-vous ? Quoy ?  
Que l'on vous amoindrisse et oste  
L'honneur de dezssoubz vostre cotte ?  
C'est bien de quoy se tourmenter !  
Allez, vous n'estes qu'une sottie,  
Je le veux croistre et augmenter.*

(M. de Saint-Gelais, *Oeuvres poétiques françaises*, vol. II, 203-204).

<sup>30</sup> Espainiako aldean hertsiki kontrolatua zen purgatorioari buruzko dotrina garai hartan. Adibide gisa aipa daiteke Bataillonak (1937 [1998, 515. or., 4. oh.] dakarren Enzinasen lekukotasuna, zeinen arabera, Mateo Pascual, Zaragozako artxipresteak, inkisizioaren presontegieta franko luzaz egon behar izan baizuen, hain zuzen, purgatoriorik ote zen dudana eman zuelakoan. Izan ere, polemika batean haren kontrako batek akusazio hori egin zionean, ihardetsi omen zion Pascualek *Quid tum?*, Enzinasen zioenaz, aski izan baitzent hori Pascual kondenarazteko (1533).

<sup>31</sup> Lyongo (1274) eta Florentzako (1439) kontzilioetan.

*Guk dadukagu ezen Purgatorioa dela ezeinere Skripturatako fundamentik gabe eritheitze bat, illusionezko eta enganiozko botiga beretik ilkhia. (Othoitzia ecclesiasticoen forma, Fedeco confessionea, 1571 [1990, 1367. or.]<sup>32</sup>*

### **Echepare herri poeta ikasigabea?**

Aurreko lerroetan erakutsia izan da Echepareren erdi-arokotasuna baieztatzeko ekarri argumentuak franko ahulak zirela, eta Frantziako literaturaren testuinguruan kokaturik bederen, ez zela literatura anakronismoren beharrik lehen euskal liburuaren edukien ulertzeko. Hondar hitz honetan beste kontu bat oraino aipatu nahi nuke, bazterretik bederen orain arte erranak hunkitzen dituen. Echepare *herri poeta* gisa aurkeztu baitzuen Altunak (1981), ikusmolde hori auzitan jarri nahi nuke hemen, zeren baitirudi nekez uztar daitekeela aurreko lerroetan, Echepare garai hartako frantses literaturaren argipean emanik, hartaz erran dugunarekin.

Aurreko ikertzaileek erakustera eman dute Echepareren koplagentza sartzen zela hartarik kanpo lehenagotik izana zen eta haren ondotik ere izanen zen tradizio batean. Izan ere, neurtzizgintza hori, 8+7 neurriko neurtitz asonatueta bereziki oinarritua zena eta ondotik ere aurkituko zena,<sup>33</sup> ez zen izan ondoko mintzairerako garai hartako poesien kopia hutsa. Oihenartek (1665) azpimarratu zuen puntu hori, Echepareren 8+7 neurriko neurtitzez zioelarik (idazkera gaurkoturik):<sup>34</sup>

*Ce sont tous des vers de quinze syllabes, dont nous ne trouverons point d'exemples parmi les ouvrages des poètes français, italiens et espagnols (chez lesquels les plus longs vers sont les alexandrins féminins contenant treize syllabes), et parmi les latins, encore moins. (Oihenart 1665)*

Tradizio horren sortzeaz eta izan zuen bilakaeraz, gauza guti derrakegu, hain zuzen Echeparek baitigu haren lehen berri segura ematen,<sup>35</sup> eta alde horretarik inprimatuaren munduko garai hartako haren ordezkari egin dezakegu, funtsean Oihenartek (1665) berak (gaitzerranik haatik) egin zuen bezala, Etchegaray, Logras eta Etcheberriren idazlanak aipatuz bestalde. Echepare garai hartan jadanik bizi zen tradizio batean sarturik, inprentatik kanpo moldatua izan zen euskal koplagentza bat, segur aski kantuari ere lotua, izan zela onartzen dugu, eta gisa hartara interpretatzen Echeparek berak errana, hots, koplak egiteko erabili antzea ez zuela euskaldunen artera ekarri, baizik ere segitu eta garaiko gaiak erabiliz *bere*

<sup>32</sup> Erran gabe doa, ondoko dotrinetan, bai Materrerenean, bai Etcheberrirenean, purgatorioari bere tokia itzuliko zitzaioala, artean Trentoko kontzilioak haren izatea berretsirik. Halere, Betolaçaren *Doctrina christiana* (1596, Bilbo) elebidunean ere ez da aipatzen purgatoriorik, baina liburuxka hau, oso-oso laburra izateaz gainera, otoitz, manamendu, bekatu eta birtute-zerrendez osatua da, beste gogoetarik gabe.

<sup>33</sup> Neurtitzen 8 / 7 erritmo egitura Lafonek (1957) eta Haritschelharrek (1971, 455-456. or.) aldeztu dute. Mitxelenak (1976) eta Altunak (1979, 337. or.), berriz, 4 / 4 // 4 / 3 egitura proposatu dute. (Dena den, argi da bi mugadurak ez direla elkarren kontrakoak, indar maila desberdinei baitagozkie erdialdeko eta laurdenaldetako etenak). Vinson (1923) eta Leizaolak (1951, 88. or.), eten guziak maila berean ezartzen zituzten: 4 / 4 / 4 / 3. Juaristik (1987, 35. or., 1990), ordea, hamaseisilabako gisa aztertzen zuen neurtitz hori, erdian etena zuela eta azken silaba errimaduna izanik, akzentuduna, eta, ondorioz, doblezka kontaturik: 8 / 7-1. (Gisa guziez, jatorri eta konparazio kontuak bazterrean uzten badira, azken notazio hau lehenbizikoaren aldaera gisa kontsidera daiteke, azken silabaren gaineko hizkuntza baldintza formalik ez badatxekio behintzat). Larramendik (1729, 375. or.) ere hamaseisilabakotzat jotzen zituen ondoko mendeko lapurtarren eredu horretako neurtitzak, eta bereziki Etcheberrirenak; haatik, eman zituen adibideen arabera, badirudi 7-1 / 7-1 egitura ere onartzen zuela, gaztelerazko erromantzeetan bezala, baina ohiko euskal moldetik urrunduz.

<sup>34</sup> Beste kontu bat da, hemengo gaiari ez dagokiona, neurri hori Erdi-Aroko latinezko kantiketan (Lafon 1957, Altuna 1981, 1991) ala zuzenean erromantzeetan beretan (Mitxelena 1976, Juaristi 1986, 1990), zuen jatorria.

<sup>35</sup> Leizaolak (1951, 87. or.) Beotibarko batailaren kantuan ere neurri bereko neurtitz errimaduna kausitzen dela seinatzen du (lehen erran bezala, berak 4 / 4 / 4 / 3 definitzen badu ere). Dena den, bataila XIV. mendekoa izanik, ez da argi Garibay eta Zaldibiaren bitartez baizik ezagutzen ez dugun kantu hau (hots, galdu ez ziren hiru neurtitzak), noiz eta nola sortu eta finkatu zen. Badaiteke guregana heldu izan den zatia bera ere puska bat geroago egina izatea (Mitxelena 1964, 68. or., Juaristi 1986).

*ignoranciaren araura* (hots, egilearen apaltasunaren topos hura bazterturik, *bere maneran*) inprentaren bidez plazaratu eta mundu guziari ezagutarazi.

Ordea, ideia horretarik abiatu eta lehen euskal koplakaria *herri poeta* gisa aurkezturik, garaiak bestelakoak zirela kontuan izanik ere, Xenpelar eta Txirrita bezalako bertsolariekin pareka edo konpara ote daiteke Echepare, Altunak (1981) proposatu bezala? Berriz ere hemen baieztapen paradoxiko baten aurrean gaude, historiografiaren ikuspegitik, aurretik aipatu dugunaren beste bertsio bat eskaintzen duena. Echepareren erdi-arokotasunaren aldeko ikuspegia, ikusi dugunaz, euskal literaturaren berankortasunaren ideian funtsatua zen, eta handik abiatu egin ziren hemen zalantzan jarri ditugun hipotesiak, Echepare euskal literaturaren gibelamenduaren eredu egiten zutenak. Ordea, Altunak ikuspegi horrekin ez zuen osoki bat egin, eta iragan aldietako herri poetaren figura erromantikoaz baliatuz, herri tradizioaren azterbidea hobetsi zuen. Hola eginez, neurtitzen erabidearen erroak Erdi-Aroko elizako latin kantiketan emanik ere, herri-tradizio garapena eta bilakaera historiatik kentzen bezala zuen,<sup>36</sup> eta Echepare berdin konpara zezakeen hiruzpalau mende geroago aurkitzen diren bertsolari modernoekin. Ohargarria da, hola jokatzuz, Altunak ere, bere moduan, akronia baten ideia onesten zuela:

[Echepare] *herri poeta da, halere, bertsolariak bezalakoze herri poeta, bertsolarien teknikaz baliatzen baita bertsoak paratzerakoan. Herri poeta da eta bertsolaria da batipat, poeta ikasia eta landua ez delako, inongo eskola maisuk emandako arau eta legerik betetzen ez duelako bertsogintzan, horien orde besterik beste lege izkutu eta sakonago batzuk baizik, bertsolariek bezalaxe. Bertsolaria da azkenik eta ez poeta landua, gure gogoangarrian euskaldunek bertsoak ondu dituztenaz geroztik (...) euskaldun soilek bertsoak egin izan dituzten bezalaxe egin dituelako.* (Altuna 1981, 321. or.) [letra lodiak BOrenak]

Badirudi Altunarentzat neurbide berezkoak baliatzen zituen euskarazko koplak tradizio bat XVI. mendean izateak aurreko mendeetarik heldu zen zenbait ohitza herriko landugabea adierazi behar zuela, eta Oihenartek zehaztuko zituen neurbide berezietarik kanpo, deus ezin izan zitekeela garai hartan, halako tradizioari zerraion koplarik baizik. Ikuspegi hori kontuan izanik uler daiteke nola Echepare bat pareka zitekeen ustez ahozko tradizio beraren jarraitzaile zuzenak ziren XIX. edo XX. mendeko bertsolari letragabeekin. Hortik, gisa berean, Echepare berriztapenik ez zekarren herri poeta zelako baieztapena.<sup>37</sup>

Bizkitartean, Echepare koplakari ikasigabe xumeen artean ezartzen duen ikuspegia arras dudazkoa da, zeren haren biografiaz bildu izan den apurrak erakusten baitu letraduna zela (cf. Huarte 1926, Urquijo 1933, Orella 1980), eta haren liburuak berak ere horren froga garbia ematen baitu. Bestalde, azpimarra dezagun, batzuetan besterik aditzera eman izan baita (Salaberri Muñoa 2002, 49. or.), haren koplak (batzuk bederen) kantu tradizio zenbaitu lotuak izan zitezkeelako hipotesiak ez dakarrela nahitaez ondorio gisa Erdi-Arotik zetorren ahozko tradizio baten mende egon zela Echepare (herri olerkari direlakoei ematen ohi zaien ezaugarria). Ez gara ariko hemen Echepareren koplek kantuarekin zer harreman ote zuten aztertzen, honetan ere, dakigunaz, iritzi desberdinak aldeztu baitira. Haatik, koplak kantuarekin lotuak izanik ere, ez da hortik segitzen ez zirela landuak. Alabaina ikus dezakegu garai berean (eta ondotik ere) XVI. mendeko frantses olerki anitz kantatzeko egiten zirela, batzuetan aurreko aireak baliaturik, eta askotan aire berriak sortuz ere, herri aireak eta aire

<sup>36</sup> Horrekin erran nahi dugu Altunak ere Echepareren koplak bizi izan zen garaiak kanpo nolabait ikusten zituela, hobeki errateko garai hori barneraturik, mende asko biltzen zituen tradizio hats luze-luzeko batean: *Esana aski da, ordea, ikusteko Etxepare, (...), Erdi-Aroko tradizio luze batean, Elizak bereziki gorde, landu eta herriak oso ezagun zuenean, txertaturik dagoela* (Altuna 1981, 327. or.).

<sup>37</sup> *Podemos afirmar que Dechepare no es en modo alguno un innovador, sino ante todo un continuador y perpetuador de una tradición popular, que luego es la única en conservarse* (Altuna 1979, 339. or.).

landuak uztarturik (Graham 1964).<sup>38</sup> Marot-en kasua bide da alderdi horretarik adierazgarriena. Hark ere, denbora hartako gainerako olerkariak bezala, maiz kantuarekin uztartu zituen bere olerkiak (Françon 1939). Bestalde, hain atxikia zen herri kantuen tradizioari (gisa hartara deituari behintzat), non liburu bat ere argitara eman baitzuen haiek bilduz (Beaurepaire-Froment 1910, 10. or.).

Echeparek nehon ere ez zuen aditzera eman bere koplak euskaldun guti ikasien edo ikasigabeen arabera, edo haiek gogoan edo haien eredura, ondu zituela, kontraste garbia izanik horretan ondoko mendeko lapurtar idazleekin. Alderantziz, bere eskaintza hitzean *letratu handiak* aipatu zituen (dakigun bezala, Axularrek kontrakoa zehaztuko zuelarik, hots, ez zuela haientzat idazten), eta zalantzarik ez da, nire ustez, Bordaleko Parlamentuko bere adiskideari esker liburu moldiztegiara eramaterakoan, haren koplak inprimatu berri zuzenean izan zezaketen *zientzia guzietako basko ikasiak* zituela gogoan oroz lehen, haiek ere berdin egitera sustatu nahi zituelarik.

Arcocha-Scarciarekin (1996) bat egiten dut hemen, Echepareren irakurlea behe mailakoa zela dioen azterketaren kontra joateko. Altunaz gainera, Juaristik bereziki defendatu du ikuspegi hori, haren ustez, Echeparek laborarientzat eta ofizialeentzat idatzi baitzuen, talde irakurketaren bidez izan zezaketelarik hauek koplak haien berri.<sup>39</sup> Ordea, ez da den mendreneko seinalerik hipotesi honen indartzera heldu denik. Gizarteko kontuak oro har arras guti agertzen dira Echepareren kopletan, baina egiten direnean, beti goi mailako taldeen munduan geldituz aipatzen dira. Hala da olerki autobiografikoan, non Echeparek erregearekin zuzeneko harremanetan aurkezten baitu bere burua, eta hala da bereziki *Iudizio jeneralean*. Nahiz topos eskatologiko gisa *tipien* eta *handien* arteko binomoa baliatu zuen bertso haietan (I, 300; ikus halaber XIII, 30), Echeparek gizarte gidaritzan ziren taldeak baizik ez zituen aipatu orduan. Hitzik ez zuen erran gizarte talde apalez, laborariez eta bestelako jende xeheez. Ez zituzkeen hauek gogoan bere neurtitzak ontzerakoan. Aitzitik, zehazki definitu zituen gizarte gidaritzaren eskuetan zeukaten hiru taldeak,<sup>40</sup> erran nahi baitu, botere politikoa zuten arma gizonak (I, 290-292), erlijio egituren kontrola zuten elizako kargudunak (I, 298-299), eta, bien artean bezala, hitzaren jabe ziren luma gizonak (I, 295-296).<sup>41</sup> Hori zatekeen Echeparek idaztean gogoan zuen gizarte ingurumena. Euskarazko koplak orduan Euskal Herrian erabiliak ziren neurbideak baliatuz (eta beraz imitazio bide hutsetan sartu gabe) moldatzerakoan, Frantzia frantsesez egiten ziren neurtitzen parean ezarri nahi izan zituen, euskara ohoretan jartzeko gora behatzen zuela dudarik batere gabe, ez behera. Eta hala aditzera eman zuen, franko argiki, *Sautrela*-n ere, euskararen *galdea* eta ikasteko nahikundearen *printze eta jaun handien* baitan sor zitekeelako esperantza erretorikoa, sinbolikoki guziz adierazgarria ene ustez,<sup>42</sup> agertzerainokoa:

---

<sup>38</sup> Kantuen eta olerkien hurbiltasun horrek Pléiadeko olerkariarekin eta ondotik ere segitu zuen; gai honetaz, ikus bereziki Verchaly (1953).

<sup>39</sup> *Los poemas de Dechepare no estaban, pues, destinados a una lectura individual, sino a ser recitados y cantados en común por un público de campesinos y artesanos (no es desde luego, un libro dirigido a los clérigos ni a la nobleza, estamentos ambos que no usaban el euskera como lengua culta)* (Juaristi 1987, 32. or.). Bizkitartean, kontuan izan Juaristirentzat (1990) Echepare eredu kulto bati (*un modelo románico culto, clerical*) jarraitzen zitzaiola, ez ahozko herri tradizio bati.

<sup>40</sup> Bereziki ohargarria da deskripzio horretan Echeparek berex ezarri zituela eliza kargudunak eta luma gizonak (teologoak hauen artean izanik). Nik uste, garai hartako giro intelektualaren alderdi bat ikus dezakegu horretan, luma gizonak elizaren itzaletik kanpo izanez. Gauza ezaguna da luma gizon askok Frantziako eta Nafarroako errege-erreginen ondoan aurkitu zutela denbora haietan nolabaiteko aterbe eta geriza.

<sup>41</sup> Izan zuen karguagatik edota izan zituen atsekabe judizialengatik ote? Seinalatzekoa da luma gizonen zerrenda egitean legerarietara Echeparek eman zien garrantzia: *Jurista eta teologo, poeta eta doktoriak, / procurador, abogado, iuje eta notariak* (I, 295-296).

<sup>42</sup> Xede horren adierazgarritasuna are garbiagoa da ondoko mendean lapurtar idazleek beren testuak argitaratzean aitortu zituzten helburuekin konparatzen badugu. Dakigunaz, hauek, alderantziz, euskara baizik ez zekiten jende maila apalagokoentzat ari izan baitziren (Oyharçabal 1999).

*Heuskaldun den gizon orok alxa beza buruia  
Ezi haien lengoagia izanen da floria  
Prinze eta iaun handiek orok haren galdia  
Skribatus halbalute ikhasteko desira. (Sautrela, 15, 10-13)*

### **Echepareren artifiziorik gabeko hizkuntza**

Echeparek jadanik ezagunak ziren euskal koplagingintzako neurriak baliatzen zituela onartzen baitugu guhaurk ere, eta haren mintzairaren arteztasuna eta naturaltasuna ere gogoan dugularik, ba ote da kontraesanik Echepare frantses olerkigintzaren lehen Pizkundeko testuinguruan jartzen duen ikusmoldearekin? Izan ere, Altunak (1977, 338. or.) mintzaira erabileran bereziki oinarritzen zuen Echeparez ematen zuen irudi *popular* berezi hori:

*Cuando afirmamos su carácter de poeta eminentemente popular, queremos de modo singular destacar aquel valor de “popularidad” que se refiere no sólo y no tanto al empleo de versos y estrofas populares, sino en particular al uso de la lengua. (Altuna 1979, 338. or.)*

Izan ere, Echepare ahozko herri tradizioarekin lotzeko argumentua haren hizkuntzaren naturaltasuna izan da. Altunak hitz junturetako arau morfo-fonologikoen trataera librea eta hitz ordenaketa bortxa handiegirik gabekoa, gogoan zituen bereziki:

*No existen en su obra ni más ni menos modificaciones fonéticas que las que estaban –y siguen estando hoy todavía – vigentes en la lengua viva; las practica allí donde la lengua de cada día las practica. Cuenta las sílabas – salvadas las pequeñas diferencias dialectales – en función de dichas modificaciones, libremente realizadas y cumplidas según lo exija el verso. Respeta en sumo grado los grupos fónicos del lenguaje hablado y ellos conformes las unidades métricas. No hay, por último, singulares violencias a la lengua ni hipérbaton forzado, sino cuando la rima – y sólo ella – lo precisa. (Altuna 1979, 338. or.)*

Lafonek (1951) ere, orokorkiago mintzatuz, agerian eman zuen Echepareren mintzamoldearen soiltasun hori, erranez haren mintzaira ez zela *une langue artificielle, savante, mais la langue qu'il parlait et la langue du pays*. Aitzineko tradizio bati jarraikiz moldatu neurtitzetan herriko hizkuntza, bertsoaren egiturari plegatuz, modu naturalean erabiltzen zuen, beraz, Echeparek, eta ez da harritzeko alde horretarik herri poesiakoekin konparatuak izan baitira haren koplak.<sup>43</sup>

Hala da, euskarari beste hizkuntzen parean jartzeko behar zuen *tornua* eman nahirik, Garazi, bere herriko mintzamoldeaz baliatu zen Echepare eta Etcheberri batek ondoko mendean ez bezala,<sup>44</sup> euskararen barne antolamendua indarka gehiegi erabili gabe idatzi zituen bere koplak, Mitxelenak (1960, 46. or.) *fluida, natural y vivo* definitu zuen hizkuntza batean. Ordea, zergatik ikus jokabide horretan Echepare poeta ikasigabea zelako markarik edo frogabiderik? Ezaguna da Frantziako lehen Pizkundeko olerkariak ondokoek baino hizkuntza soilagoa eta artezagoa erabili zutela, eta, alderdi horretarik, Echeparek ere horrelako joera erakutsi zuela zalantzarik ez da, nahiz garaiko euskarazko erreferentziarik gabe, edo hain urriarekin, neke den mailakatze egokirik egitea euskal koplagingintzaren barnean. Gogoan eduki, bestalde, garai hartan euskara landuak izan zezakeen gizarte oinarria kontuan harturik (baita neurri batean behintzat hizkuntzaren beraren bereizgarriak ere), euskal koplak egileek nahitaez mugatu behar izan zituztela beren koplagingintzako jokoak, edukiaren eta erranbidearen arteko

<sup>43</sup> *En realidad, el parentesco de la obra de Echepare con la poesía popular –en espíritu, lenguaje y versificación– salta a la vista* dio Mitxelenak (1960, 47. or.)

<sup>44</sup> Biek neurtitz mota bera erabilirik ere, kontraste handia da Echepare et Etcheberriren artean joskera arauen erabilerari dagokionez. Bigarrena ez zen beldur euskararen joskeraren bortxatzeko efektu estetikoaren erdiesteko (Oihenartek gaitzetsi *licenses exorbitantes* delako haiek, hain zuzen); ikus Oyharçabal (2002).



uztarduraren egokitasunari emanez lehentasuna.<sup>45</sup> *Artifizioak* (orduko hitzaren hartzeko) eskaini zezakeen baliabiderik gabe, monotoniaren eta neurtitz pobreziaaren irriskua hor zegoen, koplak egilearen jeinuak (du Bellayk *allégresse d'esprit* gisa definitu zuena; ikus 46. oharra) baizik gaindi ez zezakeena, Echeperaren kasuan neurri batean gertatu bezala, zenbaiten ustez bederen: Reicher (1958), Mitxelena (1968), Sarasola (1976), Altuna (1979).

Egia da, gisa batez, Echeperare poesia landugabe baten egile gisa aurkezten duen azterketa horrek erro luzeak dituela gure literaturako kritikaren historia meharrean, Oihenartek, *Notitia*-ren bigarren argitalpenean (1656, XIV. kap.) errima arrak eta emeak behar bezala bereizten ez zituzten *vulgares versificatores* delakoek jokabidea salatu nahi izan zuelarik, *Amorosen disputa*-ko lehenbiziko distikoa aipatu baitzuen (egilea nor zen erran gabe, haatik), eta 1665eko *Art poétique basque* delako hartan ere (izena emanez orduan) errepikatu baitzuen kritika bera (ohar bedi, halere, ez zuela nehon seinalatzen horretan ahozko tradizio bati buruzko mendekotasunik). Ordea, Oihenart zen bezalakoa zen eta, euskal poesia landua haren ustez nolakoa izan behar zen jakinik, haren erranek deusetan ez dute frogatzen egiazki Echeperaren koplak landugabeak zirela, soilik erakusten bi poetek ikuspegi desberdinak zituztela koplek izan behar zuten moldeaz, eta neurtitzek bete behar zituzten baldintza formalez.

Berriz ere, garai hartako frantses olerkigintzari behatzen badiogu ohartuko gara testuinguru hartan oinarri bertuko erreprotxuak eginen zizkietela *Pléiade* izenarekin ezagutuko zen *brigada*ko olerkariak, eta bereziki du Bellayk, *artifizioa* eta *doktrina* bazterturik edo gutietsirik aurreko bideetarik segitzen zutenen aldera.<sup>46</sup> Garai hartan frantsesezko eta euskarazko poesiek hain izari eta historia desberdinak izanik, ez luke zentzurik paralelismo horri behar baino eduki gehiago emateak, baina uste dut laguntzen duen Echeperare bere ingurumenean jartzera. Alabaina, batere arazorik gabe errepika daitezke hartaz du Bellayk (1549, 2. lib., 1. kap.) Marotez erabili solasak: *il est facile et ne s'éloigne point de la commune façon de parler*.

Echeperare herri poeta ez ote zen orduan? Zeri erraten zaion herri poesia. Altunak kontzeptu honi eman zizkion konotazioekin ulerturik (non herri poeta, poeta ikasigabea, koplak landugabeak herritar xeheek egundainotik egin izan duten maneran egiten zituena baitzen), ez zait iruditzen molde horretan defini daitezkeen Echeperaren koplak, gizon ikasi batek euskara letren munduan ohorean jarri nahiz eta garai hartako tematikan osoki sartzen ziren gai batzuk erabiliz,<sup>47</sup> idatzi eta inprimarazi zituenak. Euskal neurtitzak plaza betean beste

---

<sup>45</sup> Ohargarria da huts egin zutela ondoko garaietan ere *teknè* delakoa lehenetsiz bestelako jokabidea segitu zuten saio bakanek. Horrela, Etcheberriren ondotik, nehor guti ibili zen hura bezala ohiko joskeraren gaintik edo hura hautsiz koplak ontzen. Oihenartek ere arrakasta tipia izan zuen euskal neurbideen hertsiki eta zorrozki mugatzeko, hizkuntzaren arau morfo-fonologikoei berenaz eskaini aukerak murriztu nahi izan zituelarik. Hala-hala, ondoko mendean ohiko mintzamoldearen jokabide zenbaitetarik urrunduz Larramendik proposatu imitazio ereduak ere, itxura guzian arabera, jarraitzailek ez zuen izan; ikus *Artearen* bukaeran eskaini zituen hamalauduna (1729, 391. or.) eta hamarduna (*idem*, 393. or.).

<sup>46</sup> *Qu'on ne m'allègue point ici quelques-uns des nôtres, qui sans doctrine, à tout le moins non autre que médiocre, ont acquis grand bruit en notre vulgaire. (...) Qu'on ne m'allègue point aussi que les poètes naissent, car cela s'entend de cette ardeur et allégresse d'esprit qui naturellement excite les poètes, et sans laquelle toute doctrine leur serait manque et inutile. Certainement ce serait chose trop facile, et pourtant contemptible, se faire éternel par renommée, si la félicité de nature donnée même aux plus indoctes était suffisante pour faire chose digne de l'immortalité. (...) Qui désire vivre en la mémoire de la postérité, doit, comme mort en soi-même, suer et trembler maintes fois, et, autant que nos poètes courtisans boivent, mangent et dorment à leur aise, endurer de faim, de soif et de longues vigiles* (du Bellay 1549, 2. lib., 3. kap.).

<sup>47</sup> Echeperaren koplak *mezcla de lo religioso y de lo erótico* dela eta (Mitxelenaren hitzetan errateko), R. Etxepare lankideak (k.p.) oharrarazten dit Febrerak (1944) gai nahastura bera ikusirik Margarita erreginarene obran berean, agerian eman zituela gisa horretan anakronismoak ekar zitzaizkeen interpretazio okerren irriskuak. Febreraren arabera, nahastura hori garai eta giro baten ezaugarria zen: *Voilà qui nous a mené à nous demander si l'incompatibilité [etikaren eta kristau erlijioaren artekoa Margaritaren obran] n'était pas, bien plus qu'entre deux aspects d'une oeuvre littéraire, ou entre deux tendances d'une personnalité vigoureuse —entre une religion, le*

hizkuntzetakoekin batean koplen dantzan sarraraziz, euskal autore gutik izan du geroztik euskaldunentzat letren munduan bide berri bat irekitzen ari zuelako halako kontzientziarik.<sup>48</sup> Horregatik ere, mendearen lehen partea gogoan izanik bereziki, osoki bere garaiko poeta gisa har daiteke Echepare, liburu honetan omendatzen dugun J. Haritschelharrek erran zuen bezala, *zinez XVI. mendeko gizon* gisa agertzen zaiguna.

---

*christiannisme des contemporains de Marguerite, et une morale: la morale courante au XVIème siècle, des milieux polis, raffinés et mondains— la morale du courtisan français à la cour du roi François* (Febvre 1944 [1996, 18. or]).

<sup>48</sup> Ikus Arcocha-Scarcia (1996, 21. or.) *Kontrapas*-eko denbora adberbioen azterketa eginez, puntu hori agerian ematen duena.

## Bibliografia

- Altamira, Rafael. 1900-1911. *Historia de España y de la civilización española*, 4 liburuki, J. Gil, Barcelona; 1928-1929ko laugarren argitalpen zuzendu eta aberastutik eginikako berrargitalpena, J. M. Joverren aitzin-solas batekin, 2001, 2 liburuki, Crítica, Barcelona.
- Arcocha-Scarcia, Aurélie. 1996. "Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz (1)", *Sancho el Sabio*, Gasteiz, 211-234.
- Arcocha-Scarcia, Aurélie. 2005. "Les *Linguae Vasconum primitiae* de Bernard Dechepare", in Jean-François Courouau, Jean Cubelier & Philippe Gardy (arg.) *Les voix de la nymphe d'Aquitaine. Ecrits, langues et pouvoirs. 1550-1610*, Centre Mateo Bandello, Agen, 117-132.
- Aldekoa, Iñaki. 2004. *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.
- Altuna, Francisco. 1979. *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Mensajero, Bilbao.
- Altuna, Patxi. 1981. "Etxepare, herri poeta", *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 321-341.
- Altuna, Patxi. 1991. "Son hexadecasílabicos los versos de Dechepare?", Joseba Lakarra & Iñigo Ruiz Arzallus (arg.) *Memoriae Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, I, 93-105.
- Ariztimuño, José. 1933. "El primer renacentista y poeta euskeldun", *Yakintza* 1, 12-20.
- Aulestia, Gorka. 1991. "Bernat Dechepare, escritor medieval o renacentista?", *Muga* 78, 86-93.
- Bataillon, Marcel. 1937. *Erasme et l'Espagne*, jatorriko testuaren argitalpen berria Jean-Claude Margolinen aitzin-solas batekin, 1998, Droz, Geneva.
- Beaurepaire-Froment, E. 1910. *Bibliographie des chants populaires français*, 3. argitalpena, aberastua, Rouart & Lerolle, Paris.
- Defaux, Gérard. 2002. *Les fleurs de poésie françoise. Hécatomphile*, Société des Textes français modernes, Paris.
- Díaz-Plaja, Guillermo (zuzend.). 1958. *Historia general de las literaturas hispánicas*, 5. liburukia, Barcelona.
- Du Bellay, Joachim. 1549. *Deffence et illustration de la langue françoise*. Arnoul l'Angelier. *Gallica* webgunean ikus daiteke < <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1050733>>
- Echepare, Bernard. 1545. *Linguae Vasconum primitiae*, Morpain, Bordeaux. Patxi Altunak paratu edizo kritikoa, 1980, Euskaltzaindia & Mensajero, Bilbo.
- Etxaide, Yon. 1958. *Amasei seme Euskalerriko*, Kuliska sorta 21-22, Itxaropena, Zarautz.
- Emery, Gilles. 1999. "La doctrine catholique du purgatoire", *Nova et vetera* 74-3, 37-49.
- Febvre, Lucien & Martin, Henri-Jean. 1958. *L'apparition du livre*, Albin Michel, Paris.
- Fournié, Michelle. 1997. *Le Ciel peut-il attendre? Le culte du Purgatoire dans le Midi de la France (1320 environ – 1520 environ)*, Cerf, Paris.
- Françon, Marcel. 1939. "Poésie populaire et poésie littéraire", *Modern Philology* 37-1, 7-11.

- Françon, Marcel. 1950. "Ronsard et la poésie populaire", *Modern Language Notes*, 65-1, 55-57.
- Gil Bera, Eduardo. 1992. "Melior fortuna", *Mazantini*, 2. Armiarmaren webgunean irakur daiteke: <<http://andima.armiarma.com/maza/maza0208.htm>>
- Graham, Victor. 1964. "Music for Poetry in France (1550-1580)", *Renaissance News*, 17-4, 307-317.
- Gray, Floyd. 2000. *Gender, Rhetoric and Print Culture in French Renaissance Writing*, Cambridge University Press.
- Haritschelhar, Jean. 1969. *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)*, Société des Amis du Musée Basque, Baiona.
- Haritschelhar, Jean. 2001. "Emazten fabore", *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*, Iker 14-2, Euskaltzaindia, Bilbo, 113-124.
- Haritschelhar, Jean. 2002a. "Défense et illustration de la langue basque au XVIe siècle: La *Sautrela* de Bernat Echapare", *Hommage à Jacques Allières, I. Domaine basque et pyrénéen*, Atlantica, Biarritz, 119-127.
- Haritschelhar, Jean. 2002b. "Ezkonduien koplak (Etxepare 1545)", *Lapurdum* VII, 237-242.
- Haritschelhar, Jean. 2002c. "Amoros sekretuki dena", *Lapurdum* VIII, 233-246.
- Huarte, Jose Maria. 1926. "Los primitivos del Euskera. Dechepare y su tiempo", *Euskalerrriaren alde*, 241-248.
- Jeanneret, Michel. 2003. *Eros rebelle. Littérature et dissidence à l'âge classique*, Seuil, Paris
- Juaristi, Jon. 1986. "El Cantar de Beotibar, Un romance noticioso vasco?", *ASJU* XX-3, 845-856.
- Juaristi, Jon. 1987. *Literatura vasca*, Taurus, Madrid. Argitalpen berria, 2001, Erein, Donostia.
- Juaristi, Jon. 1990. "De métrica vascorrománica", *ASJU* XXIV-2, 381-406.
- Kortazar, Jon. 1996. "Bernard d'Etxepare bidegurutzean", *Entseiukarreen*, 12, Deustuko Unibertsitatea, 29-35.
- Kortazar, Jon. 1997. *Euskal literaturaren historia txikia. Ahozkoa eta klasikoa (XVI-XIX)*, 2. argitalpena, 2000, Erein, Donostia.
- Lafitte, Pierre. 1931. *Eskualdunen loretegia*, Lasserre, Baiona.
- Lafitte, Pierre. 1941. *La littérature basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Baiona.
- Lafon, René. 1951. "La langue de Bernard Dechepare", *BAP* VII, 309-338.
- Lafon, René. 1952. "Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Dechepare", *BAP* VIII, 139-380.
- Lafon, René. 1957. "Sur la versification de Dechepare", *BAP* XIII, 387-393.
- Leizaola, Jesús María. 1951. *Estudios sobre la poesía vasca*, Ekin, Buenos Aires.
- Leizarraga, Ioannes. 1571. *Iesust Christ gure Iaunaren Testamentu berria*, T. Linschmann eta H. Schuchardtek 1900ean argitaratu edizioaren argitalpen faksimilea, 1990, Euskaltzaindia, Bilbo.

- Malenfant, Marie-Claude. 2003. *Argumentaires de l'une et l'autre espèce de femme : le statut de l'exemplum dans les discours littéraires sur la femme (1500-1550)*, Presses de l'Université Laval, St. Nicolas (Québec).
- Marcy, Céline. 2006. "Antiféminisme et humanisme dans les *Controverses des Sexes masculin et féminin* de Gratien du Pont", N. Dauvois (arg.) *L'humanisme à Toulouse (1480-1596)*, Champion, Paris, 373-389.
- Mayer, Clément. 1964. *Clément Marot, un tableau synoptique de la vie et des œuvres de Clément Marot et des événements artistiques, littéraires et historiques de son époque. Un choix de textes de Clément Marot*, P. Seghers, Paris.
- Marot, Clément. 1538. *Les œuvres de Clément Marot de Cahors, valet de chambre du roy... augmentées de deux livres d'Épigrammes, et d'ung grand nombre d'autres œuvres par cy devant non imprimées, le tout soigneusement par luy mesmes reveu et mieulx ordonné*, M. Dolet, Lyon. Frantziako Nazio Bibliotekako Gallica webgunean irakur daiteke: <<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k70238n>>.
- Michel, Francisque. 1857. *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, F. Didot, Paris.
- Michelena, Luis. 1960. *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid.
- Michelena, Luis. 1964. *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid.
- Michelena, Luis; 1968. "Sarrera gisa", *B. Dechepare, Olerkiak*, Donostia, 5-15.
- Michelena, Luis. 1976. "Accentuación alta-navarra", *Fontes Linguae Vasconum* 23, 147-162.
- Mitxelena: ikus Michelena, Luis.
- Molinier, Henri Joseph. 1910. *Mellin de Saint-Gelays : études sur sa vie et sur ses œuvres*, Carrère, Rodez. Berrargitalpen facsimilea, 1968, Slatkine, Genève.
- Oihenart, Arnaud. 1665. *Art poétique basque*, P. Lafittek argitaratu eskuizkribua, 1967, *Gure Herria*, Baiona.
- Orella, Jose Luis. 1980. "Mosen Bernart Dechepare", P. Altunak *Lingua Vasconum Primitiae*-z egin edizio kritikoa aitzin solasa, 1980, Euskaltzaindia & Mensajero, Bilbao, VII-XV)
- Orixe. 1927. *Euskal literaturaren historia laburra*, berrargitalpena, P. Iztuetak prestatua, 2002, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Orpustan, Jean-Baptiste. 1993. "Bernat Etxepare 'ta Arnalde Oihenart: ondoriotasunetarik harat", *Iker* 8, Euskaltzaindia, Bilbo, 451-466.
- Orpustan, Jean-Baptiste. 1996. *Précis d'histoire littéraire basque, 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara*. Izpegi, Baigorri.
- Oyharçabal, Beñat. 1999. "Les prologues auctoriaux des ouvrages basques des XVIe et XVIIe siècles", *Lapurdum* IV, numéro spécial, 39-94.
- Oyharçabal, Beñat. 2002. "De l'usage de l'étrangeté syntaxique : les structures agrammaticales dans la versification basque du 17<sup>ème</sup> siècle", X. Artiagoitia, P. Goenega & J.A. Lakarra (arg.) *Erramu bontea: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, ASJUren gehigarriak XLIV, 479-498.
- Reicher, Gil, 1958. "Bernard Dechepare a-t-il subi des influences littéraires ?", *Gure Herria* 30, 311-317.

- Ridgely, Beverly. 1962. "Mellin de Saint-Gelais and the First Vernacular Reference to the Copernican System in France", *Journal of the History of Ideas*, University of Pennsylvania Press, 107-116.
- Ruiz, Juan. 14. mendea. *El Libro de Buen Amor*, 2000ko argitalpena, Alicante. Sarean ere aurki daiteke: < <http://www.cervantesvirtual.com/FichaObra.html?Ref=2765>>
- Saint-Gelais, Mellin de -. 1873. *Oeuvres complètes de Melin de Sainct-Gelais*, Prosper de Blanchemain-en argitalpena, 2 liburuki, Paris. Kraus Reprint, 1970, Nendelt, Lichtenstein. *Gallica* webgunean irakur eta har daitezke bi liburukiak.
- Saint-Gelais, Mellin de -. 1993 & 1995. *Oeuvres poétiques françaises*. Donald Stonek prestatu argitalpena, 1. lib. (1993) eta 2. lib. (1995). Paris, Société des Textes Français Moderne.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2002. *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte*, Elkar, Donostia.
- Sarasola, Ibon. 1967. "Euskal poesia gaur", *Jakin*, 24, Oñati, 12-19.
- Sarasola, Ibon. 1971 *Euskal literaturaren historia*, gaztelararako itzulpena, *Historia de la literatura vasca*, 1976, Akal, Madril.
- Stone, Donald. 1984. *Mellin de Saint-Gelais and literary history*, French Forum monographs, 47, Lexington, Kentucky.
- Toledo, Ana Maria. 2003. "Maitasun mundutarra Etxeparengan: "Baskoen gaztiguia", *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*, *Iker* 14-2, Euskaltzaindia, Bilbo, 237-256.
- Troubat, J. (arg.). 1883. *Oeuvres de Sainte-Beuve. Tableau de la poésie française au XVIIe siècle*, 1. lib., Garnier, Paris.
- Urkizu, Patri. (Zuzend.). 2000. *Historia de la literatura vasca*, UNED ediciones, Madrid.
- Urkizu, Patri. 2001. "Bernard Lehet, Eustorg de Beaulieu eta Bernard Detxepare Errenazimenduko hiru gizon", *Eugène Goyhenecheri omenaldia-hommage*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 235-242.
- Urquijo, Julio de -. 1933. "Introducción al *Linguae Vascomum Primitiae* de Bernard Dechepare (primer libro impreso en vascuence)", *RIEV* 24-4, 660-684.
- Veillet, René. 1910-1929. *Recherches sur la ville et sur l'église de Bayonne. Manuscrit du Chanoine René Veillet ; publié pour la première fois avec des notes et des gravures par V. Dubarat, J.-B. Daranatz, Lasserre & A. Lafon, Ribaut, Baiona & Paue*.
- Verchaly, André. 1953. *Poésie et Air de Cour de France en France jusqu'en 1620. Musique et poésie au XVIIe siècle*, Société française de Musicologie, Paris.
- Villasante, Luis. 1961. *Historia de la literatura vasca*, berrargitalpena, 1979, Arantzazu, Oñati.
- Vinson, Julien. 1891. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Maisonneuve, Paris. Berrargitalpena, L. Mitxelenaren aitzin solas batekin, 1898ko gehiketa eta zuzenketa liburukiarekin batean, *Bibliographie de la langue basque*, 1-2, 1984, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Vinson, Julien. 1923. "Etymologie, citations, métrique", *RIEV* 14-2, 353-362.